



Josemaria Escriva Deuna

Opus Deiren Sortzailea

OTOITZA

Jaungoiko gure Jauna: norbere lanaren bitartez eta kristau lauen eginbeharrak eginez, santutasunean aurreratzeko bide bat erakutsi baitiguzu, eta bide hori, Opus Dei, munduan sortzeko laguntzaile leial izateko Josemaria Deuna, apaiza, Ama Birjinaren bitartez ezin konta ahala graziaz apaindu: emadazu neronek ere jakin dezadan nire bizitzako une eta egoera guztiak Zu maitatzeko bide bihurtzen eta isil eta pozik Elizari, Erromako Aitari eta lagun hurkoen arimei zerbitzatzen, mundu honetako bideak sinesmen eta maitasunaren argiaz argituz. Emadazu Josemaria Deunaren bitartez eskatzen dizudan mesedea... (eskatu). Hala bedi.

Gure Aita, Agurmaria, Aintza.

"Zuen gogo-ametsak, zuen betekizunak eta maite-grinak nun, hantxe ere duzue Kristorekin egunero egoteko leku egoki. Lurreko arazorik lurrezkoenen artean izan behar dugu santu, Jaungoikoaren eta gizon guztien zerbitzari zintzoak izanik. Urrutienero zeru-mugan, ene maiteok, lurra zeruaz bat egiten dela dirudi. Baina ez, zeru-lurrak zuen bihotzetan elkartzen dira, eguneroko bizitza santuki daramazuenean..."

Josemaria Escriva de Balaguer, *Mundua bihotz-bihotzez maite izatea* homiliatik, 1967-X-8.

Josemaria Escriva Deuna Barbastron (Espainia) jaio zen 1902-I-9an. 1925-III-28an Zaragozan apaiztua izan zen. 1928-X-2an Opus Dei sortu zuen goi-argiz argitua. 1975-VI-26an bat-batean hil zen Erroman, langelan zuen Ama Birjinaren irudiari azken aldiz lasterki begiratu ondoren. Garai hartan Opus Dei bost kontinenteetan zabaldua zegoen, 80 naziotasunetako 60.000 kide baino gehiago zituela, Elizaren zerbitzuan, Josemaria Escriva Deunak beti bizi izan zuen Aitasantuarenganako eta Gotzainenganako batasun beteko izpiritu berberaz. Juan Pablo II.a Aita Santuak 2002-X-6an kanonizatu zuen Opus Deiren Sortzailea Erroman. Bere jaiegun liturgikoa ekainaren 26an ospatzen da.

Josemaria Escriva Deunaren gorputza Bakearen Maria Deuna Prelatu-Elizan datza. Viale Bruno Buozzi 75, Erroma.

Josemaria Escriva Deunari buruzko argibide gehiagorako:

www.josemariaescriva.info
www.opusdei.org

Josemaria Escriva Deunaren bitartez mesederen bat lortu dutenei arren eskatzen zaie Opus Dei Prelatutzari aditzera eman diezaioten. Oficina para las Causas de los Santos. Calle Diego de León, 14, 28006 Madrid. e-mail: ocs@opusdei.es

Eliz-baimenez.